

Nafarroako Gobernuak hizkuntzaren gainean hartutako erabakien Kronologia (1999ko urtariletik 2003ko maiatza bitartekoa)*

1999ko urtarrilaren 22a

Nafarroako Euskararen Kontseiluko 12 kidek dimisioa aurkezten dute, Gobernuko hizkuntza politikarekin konforme ez daudelako.

1999ko maiatza

Hauteskondeen emaitzak gorabehera eta LORAFNAREN aldaketari esker, UPNk gobernuan jarraitzen du.

Hizkuntza Politikari buruzko kabineteen berrantolatzeari ekiten dio Gobernu sortu berriak: Hizkuntza Politikako Zuzendaritza Nagusia, Lehendakaritza eta Barne Departamendutik Hezkuntza eta Kultura Departamentura pasatzen dute.

2000ko urtarrila

Oinarriak-ek elkargunearen aldeko kanpaina egiten du, Nafarroa osoan euskararen ofizialtasuna aldarrikatzeko. Vasceencearen Legea aldatzeko proposamena sustatzeko 47.000 sinadura biltzen ditu.

2000ko otsailaren 15a

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hizkuntza Normalizazioarako Batzordeak euskarazko irakaskuntzarako plangintza aurkezten du. Euskararen presentzia guztiz murrizten da ikasketetan.

2000ko maiatzaren 20a

PSOE-PSNren 2000.eko maiatzaren 20ko Ebazpena, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza

Politikari buruzkoa. PSNren deklarazioa hizkuntza politikaren gainean: "elebitasun bitxia" dago Nafarroan.

2000ko maiatzaren 25a

Hizkuntza Politikari buruzko eztabaida Parlamentuan, PSNk proposaturikoa.

2000ko ekainaren 8a

Hizkuntza Politikako Zuzendaritza Nagusiko arduradunen dimisioa: Pérez de Viñaspre eta beste bi kidek, Gobernuak bere iritzia bazter batean uzten zituela eta, dimititu egiten dute.

2000ko ekainaren 19a

Pedro Pegenaute, Hizkuntza Politikako zuzendari berri izendatzen dute.

Gobernuak erreforma gehiago egiten ditu; hala nola, Prestakuntza Bulegoa Nafarroako Administrazio Publikorako Institutuaren menpe egotera pasatzen da; Itzulpen Atala Nafarroako Aldizkari Ofizialaren Zerbitzura igarotzen da; Programazio eta Ikerketa, eta Normalizazio eta Sustapen Zerbitzuak, Hizkuntzaren Programazio, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuan bateratu ziren, eta Unibertsitateen eta Hizkuntza Politikaren Zuzendaritza Nagusiaren menpe jartzen dira. Berrantolakuntza horren zioa da euskararen "sustapen" izan daitekeen edozein politika baztertea eta aurrekontuak moldatzea.

*Kronologia hau osatzeko kontuan izan ditugu *Diario de Noticias* egunkariak gain, Alberto Barandiaranen "Euskararen tratamendua Sanzen garaian. Kronologia", in: *Jakin*, 135/2003: 21-48; eta Jose Luis Mendozaren "Hizkuntza Politika Nafarroan", in: *Jakin*, 49-72.

2000ko urriaren 17a

Aurelio Arteta, EHUKo Etika Katedradunak, Javier Tajadura EHUKo Konstituzio Zuzenbide Katedradunak eta Javier Aranaz NUPeko ekintza kulturaletarako teknikariak errekurtsoa aurkezten dute Nafarroako hainbat herriren euskarazko izen ofizialen aurka.

2000ko azaroaren 6a

Nafarroako Kontseiluaren 44/2000 Ebazpena, azaroaren 6koa: Administrazio Publikoetan Euskararen erabilera arautzeko Foru Dekretu proiektuaren zioen adierazpenak esandakoa ez dator bat hartutako neurriekin.

2000ko abendua

372/2000 Dekretua, abenduaren 11koa, Administrazio Publikoetan Euskararen erabilera arautzeko.

Ondoren etorriko dira Vasconcearen erabilerarako Dekretu berria garatzeko planak.

2001eko urtarrilaren 14a

Nafarroako Gobernuak Eusko Ikaskuntzari agindutako 12 milioi pezetatako diru laguntza geldiarazi zuen eta hitzarmena hausteko mehatxu egin zuen, Auñamendi Entziklopediaren Interneteko zabalkundearen Nafarroari buruz emandako sarrerak gustukoak ez zituelako.

2001eko urtarrilaren 19a

Erabakia, 2001eko urtarrilaren 8koa, Nafarroako Gobernuak hartua, "euskararen erabilerari buruzko araudia eremu mistoan aplikatzeko ekintza-plana" onesten duena. 372/2000 Dekretua garatzeko Plana, eremu mistoari buruzkoa (NAN 2001eko urtarrilaren 19koa).

2001eko otsailaren 3a

EA, EAJ, IU/EB eta Batzarreko hautetsiek errekurtsoa jartzen diote 372/2000 Dekretuari, Euskararen Legea aldatzen duela argudiatuz.

2001eko otsailaren 14a

Erabakia, 2001eko otsailaren 5koa, Eremu Euskaldunean Euskara erabiltzeko arautegia aplikatzeko ekintza-plana onesten duena. 372/2000 Dekretua eremu euskaldunean garatzeko Plana (NAN 2001eko otsailaren 14koa).

2001eko otsailaren 24a

27.000 lagun biltzen dira euskararen alde Iruñean, *Oinarriak* eta alkateek egindako deiari erantzunez.

2001eko otsailaren 28a

22/2001 Foru Agindua, otsailaren 9koa, administrazioan sartzeko merezimendu baremoei buruzkoa (NAN, 2001eko otsailaren 28koa).

Lanpostu guztietan frantsesa, ingelesa eta alemanieraren ezagutza baloratu; euskara, "bidezko kasuetan" soilik.

2001eko martxoaren 15a

Bojan Brezigarrek, Europako Batasunaren Hizkuntza Gutxituen Bulegoko presidentea, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika salatzen du, Europan parekorik ez duela esanez.

2001eko apirilaren 27a

Gaztelaniazko eskola liburuak euskarara itzultzeko diru-laguntzak onartzen ditu Gobernuak (595.000€).

2001eko maiatzaren 24a

Gobernuaren NUPeko hizkuntzari buruzko lege proiektuan, NUPen soilik irakasletza eskainiko zen euskaraz; gainontzeko karreratan, irakasgai libreak soilik.

2001eko ekainaren 19a

Udalerrietako hautetsiek Nafarroa osoan euskara ofizial izateko aldarria egiten dute.

2001eko ekainaren 28a

Nafarroako administrazioaren plantilla berria onartzen da: euskara derrigor jakin beharreko lanpostuak, irakasleak kenduta, 153 (aurreko urtean, 248).

2001eko abuztuaren 10a

Hizkuntza Politikako Zuzendaritza Nagusiak Aldizkari Ofizialean argitaratzen du euskara komunikabideetan garatzeko diru laguntzen deialdia. Ezer ez euskarazko prentsarentzako.

2001eko irailaren 17a

Auzitegi Nagusiko presidentea, Rafael Ruiz de la Cuestak, urte judizialaren hasieraren hizkuntza politikari kritikak egiten dizkio.

2001eko urriaren 16a

Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntzak ez dute Nafarroatik diru laguntzarik jasoko.

2001eko azaroaren 14a

Nafarroako aurrekontuetan hizkuntza politikarako aurrekontuak behera egiten du.

2001eko abenduaren 25a

Nafarroako Administrazio Auzitegiak Iruñeako Udalaren hizkuntza erabileraren aurkako helegiteak ontzat hartzen ditu, 1997an onartutako udal ordenantzei jarraiki. Udal arduradunek 372/2000 Foru Dekretuaz egindako interpretazioa burugabea dela esaten du epaitegiak.



2002ko urtarrilaren 31

Iruñeako Udalak eta Nafar Ateneoak "Iruñeako euskalkiak berreskuratzeko konpromisoa" adosten dute hitzarmen baten bitartez.

2002ko martxoaren 1a

Pedro Pegenauteren zuzendaritzak epez kanpo eta teknikarien kontrako iritziz, *Diario de Navarra* egunkariari 31.586 € diru-laguntza ematen dio, aurreko urtean baino 10 aldiz gehiago. Oposizioko alderdiek erantzukizun politikoak eskatzen dituzte.

2002ko apirilaren 15a

Iruñeako Udalak urtero ikastetxe pribatu eta publikoetan antolatzen dituen haur literatur lehiaketan deialdi berezia egiten du, batuaz gain, euskalkian idatzitako lanentzat.

2002ko ekainaren 3a

Itun berezia egingo da Euskaltzaindiarekin. Gobernuak esango dio zer ikertu alde biko hitzarmen baten bitartez.

2002ko ekainaren 26a

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 372/2000 Euskararen Foru Dekretua oso-osorik baliogabetzen du, eskatu beharreko bi txosten sahiesteagatik: Nafarroako Euskararen Kontseiluaren eta Nafarroako Gobernuaren Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarren txostenak.

Gobernuak kasazio errekurtsua aurkeztu zuen Epaitegi Gorenaren aurrean.

2002ko abuztua

Nafarroako Gobernuak presidenteak ikurrei buruzko lege berri bat iragartzen du, ikurriña jartzen duten herriei zigorra ezarriko diena.

2002ko abuztuaren 21a

Pedro Pegenauteren kontrako demanda, prebrikazioagatik, tramitera onartzen du Nafarroako Auzitegi Nagusiak.

2002ko urriaren 7a

Nafarroako Gobernuak adituak izendatzen ditu Euskararen Kontseilurako, Dekretua informatu behar zuen Batzorderako. Hura kontrolatu nahian, Gobernuak konfidantzazko hiru funtzionario izendatzen ditu: euskararen aurka idazki bortitza argitaratu zuen idazle bat eta unibertsitateko hiru irakasle. Izendapen berriekin Gobernuak zuzenean kontrolatzen ditu 11 izendapenak.

2002ko azaroaren 20a

Euskara Komunikabideetan sustatzeko diru-laguntzaren deialdiak euskarazko komunikabideak baztertzen ditu berriro: *Egunkaria Euskalerrria Irratia* eta *Nabarra* diru-laguntzarik gabe.

2003ko otsailaren 12a

29/2003 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena (NAN, 2003ko otsailaren 12koa). Epaitegiekin desemandako Dekretu bera da, nahiz eta, oraingoan, Euskararen Kontseilu berri bati eskatu dioten aurretik aldeko informea.



Araudia

- 18/1986 Foru Legea, Nafarroako Euskarari buruzkoa.
- 159/1988 Foru Dekretua, hezkuntza ez-unibertsitarioan euskararen erabilpenari buruzkoa.
- 160/1988 Foru Dekretua, hezkuntzarako lanpostuetan hizkuntza eskakizuna arautzen duena.
- 161/1988 Foru Dekretua, helduen euskalduntzerako hezkuntza eta dirulaguntzak arautzen dituena.
- 162/1988 Foru Dekretua, irakasleen hizkuntza birziklapena arautzen duena.
- 70/1994 Foru Dekretua, martxoaren 21ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzeko.
- 135/1994 Foru Dekretua, uztailaren 4koa, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzeko.
- 372/2000 Foru Dekretua, abenduaren 11koa, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena.
- 29/2003 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena.
- Erabakia, 2001eko urtarrilaren 8koa, Nafarroako Gobernuak hartua, euskararen erabilerari buruzko araudia eremu mistoan aplikatzeko ekintza-plana onesten duena (NAN, 2001eko urtarrilaren 19koa).
- Erabakia, 2001eko otsailaren 5ekoa, Eremu Euskaldunean Euskara erabiltzeko arautegia aplikatzeko ekintza-plana onesten duena (NAN, 2001eko otsailaren 14koa).
- 22/2001 Foru Agindua, otsailaren 9koa, administrazioan sartzeko merezimendu baremoei buruzkoa (NAN, 2001eko otsailaren 28koa).

Jurisprudentzia

- Nafarroako Auzitegi Administratiboaren 2002ko urtarrilaren 11ko Ebazpena, Iruñeako Udalak seinaleak elebietan jarri beharra agintzen duena.
- Nafarroako Auzitegi Administratiboaren 2002ko abenduaren 14ko Ebazpena, Iruñeako Udalak Gaztelu Plazan aparkatzeari buruz gaztelania hutsean argitaratutako foileto informatiboari buruzkoa.
- Nafarroako Auzitegi Administratiboaren 2001eko abenduaren 25eko Epaia, Iruñeako Udalaren hizkuntza erabileraren aurkako errekurtsua ontzat hartzen duena. Epaian, 1997an onartutako udal ordenantzei jarraiki, udal arduradunek 372/2000 Foru Dekretuaz egindako interpretazioa burugabea dela esaten du.
- Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2002ko ekainaren 26ko Epaia, 372/2000 Foru Dekretua deusezten duena (200/01 errekurtsua), Euskara Kultur Elkargoak tarteratu zuena.
- Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2002ko ekainaren 28ko Epaia, 372/2000 Foru Dekretua deusezten duena (209/02 errekurtsua) LAB, ELA, ESK, CGT/LKN eta STEE/EILASEk tarteratua. Esandako ebazpenek guztiz deuseza deklaritzen dute Dekretua. Bi kasuetan ebazpenaren funtsa da Dekretu hori aldarrikatzeko prozeduran bi txosten falta zirela: Euskararen Nafarroako Kontseiluarena eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena.
- Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2002ko ekainaren 26ko Epaia, 2001eko otsailaren 5eko Ebazpenaren kontrakoa, eremu euskaldunean euskararen erabilerari buruzkoa. Lekunberri eta Lesakako Udalek, Idoia Saralegi San Sebastián eta Milagros Rubio Salvatierra andreekin batera tarteratutako errekurtsuari (444/01 errekurtsua) erantzunez. Plana deuseza deklaritzen du epaiak, aurreko arrazoi beragatik legezko txostenak ez eskatzeagatik.



Bibliografia

- AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, I. "Nafarroako Administrazio Publikoetan Euskararen Erabilera Arautzen duen abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuaren legezketasunari buruzko irizpena", In: *Eleria*, 8, 2001; 65 eta hurr. orr.
- ALLI ARANGUREN, J.C. "Perfiles institucionales de la lengua vasca en la Comunidad Foral de Navarra", In: *Euskara*, XLVI, 2001; 983 eta hurr. orr.
- ARBELOA, V.M. *Navarra y el Vascuence*, Iruñea: Gobierno de Navarra, 2001.
- ARREGI, M. *Euskararen inguruko diskurtsoaren eraiketa Nafarroan*, Biarritz: UEU, 2000.
- BIAIN SALABERRIA, I. "Situación actual de la educación bilingüe en la Comunidad Foral Navarra", In: Miquel Siguán, *La educación bilingüe*, Barcelona: Universitat de Barcelona, ICE, 2000.
- CIES, *Nafarren euskararekiko jarreraren azterketa*, Iruña: Gobierno de Navarra, Departamento de Presidencia e Interior, 1990.
- DEL BURGO TAJADURA, J.I. *El ocaso de los falsarios*, Madrid: Laocoonte, 2000.
- ENERIZ OLAECHEA, F.J. "El euskera en la Administración Local de Navarra", In: M. Razquin eta P. Larumbe, *La Administración Local en Navarra*, Iruñea: Aranzadi, 1986; 308 eta hurr. orr.
- ERIZE ETXEGARAI, X. *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936)*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 1997.
- ERIZE ETXEGARAI, X. *Vascohablantes y castellanohablantes en la historia del euskara de Navarra*, Iruñea: Gobierno de Navarra, 1999.
- ETXEBERRIA BALERDI, F. *Bilingüismo y educación en el País del Euskara*, Donostia: Erein, 1999.
- EUSKARA KULTUR ELKARGOIA. *Hizkuntzen Europako Urtea*, 2001eko abenduaren 14 eta 15ean Euskara Kultur Elkargoak antolatutako jardunaldietara aurkeztutako txostenak biltzen dituen, Iruñea: EKE, 2002.
- IRIGARAY, J.A. *Euskara eta Nafarroa*, Iruñea: Aranzadi, 1973.
- IZU BELLOSO, M. *Navarra como problema. Nación y nacionalismo en Navarra*, Madrid: Biblioteca Nueva, 2001.
- JAKIN, *Nafarroa*, 6. zenb., 1978.
- JIMENO ARANGUREN, R. (koord.) *El euskera en tiempo de los éuskaros*, Iruñea: Gobierno de Navarra, Ateneo Navarro/Nafar Ateneoa, 2000.
- JIMENO JURÍO, J.M. *Navarra. Historia del Euskara*, Tafalla: Txalaparta, 1997.
- LÓPEZ-GOÑI, I. *Nafarroa Garaiko Ikastolen Historia (1963-1982)*, Iruñea: EKE, 2002.
- MENDOZA PEÑA, J.L. "El euskera en Navarra", In: *Hermes*, 2, 2001eko uztaila; 54 eta hurr. orr.
- MONREAL ZIA, G. "La oficialidad jurídica del euskara en Navarra", In: Edorta Cobreros, *Jornadas sobre el régimen jurídico del euskera*, Oñati: HAEE/IVAP, 1990; 137 eta hurr. orr.
- MÚGICA NAVARRO, J.R. *Concentraciones escolares en Navarra: 1962-1985*, Iruñea: Gobierno de Navarra, 1990.
- "Nafarroa eta Euskara", In: *JAKIN*, 135 zenb., 2003.
- NAFARROAKO GOBERNUA. "El euskara en la enseñanza en Navarra", In: *Colección de Textos Legales*, 6 zenb., 1989.
- NAYA, L.M., ETXAGÜE, X., LUKAS, F.J. *Lengua, Escuela y Cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX*, Bilbo: EHU, 1995.
- NIEVA ZARDOYA, J.L. *La idea euskara de Navarra, 1864-1902*, Bilbo: Sabino Arana Fundazioa, Euskara Kultur Elkargoa, 1999.
- PSOE-PSN. *Declaración política del Comité Regional del Partido Socialista de Navarra-PSOE acerca de la Política Lingüística desarrollada por el Gobierno de Navarra en aplicación de la Ley foral del Vascuence*, Iruñea, 2000.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J.M. *El estado actual del vascuence en Navarra (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo*, Iruñea: Vianako Printzea Erakundea, 1970.
- URMENETA PURROY, B. *Navarra ante el vascuence. Actitudes y actuaciones (1876-1919)*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 1996.
- ZABALETA ZABALETA, P. *Euskal irakaskuntza Nafarroan, normalizaziorako oinarriak*, Iruñea, 1986.
- ZENBAIT EGILE. "15 años de la Ley del Euskera en Navarra", dossier, In: *RIEV*, 46, 2, 2001.



EUSKARARI BURUZKO FORU LEGEA



Nafarroako
Gobernua



18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa

18/1986 Foru Legea, Abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa

NAFARRAKO GOBERNUAREN LEHENDAKARIA

Jakin erazten dut Parlamentuak honako hau onetsi duela:

EUSKARARI BURUZKO FORU LEGEA

Komunitateen ondare kulturalaren barruan, Hizkuntzek toki gailena izaten dute. Gizakien arteko komunikabideetako tresna nagusia izateak, giza harremaneko funtsezko oinarri bihurtu ditu, eta kolektibitateari bere identitatea ematen dio, gizarteko erkideei elkarbizitza eta ulermen elementua emanez. Aldi berean, hizkuntzak historia berekiaren sinbolo eta testigantza izaten dira, belaunaldiz belaunaldi erabiltzen dituzten herrien esperientzia kolektiboa bildu, begiratu eta transmititzen bait dute.

Hizkuntz fenomenoaren izaera dinamikoak eta bertan parte hartzen duten faktoreen zailtasun eta aniztasunak, etengabeko gorabeherak sortu dituzte historian barna komunitateetako hizkuntzen zabalera eta indarrari dagokienez: batzuen hedakuntza eta besteen atzerakada, batzutan hizkuntzaz kanpoko arrazoiek eraginak, dudarik gabe dira nabarmenenak. Aldaketa hauetan, maiz komunikazioaren oinarri direnen kontrako jarrerak izan dute esku. Jarrera hauek, hizkuntzetan arrazoirik gabe elkarrengandik urruntzeko indarra aurkitzen dutenek, edo hizkuntz aniztasunak berekin daukan barne-barneko aberastasuna ikusteko gauza ez direnek bultzatu dituzte.

Nafarroa bezala beren ondarean hizkuntza bat baino gehiago edukitzeaz ondrazten diren Komunitateak, altxor hori begiratu eta babestera behartuak dira, baita hura hondatu eta galtzea eragoztera ere. Baina ondare horren zaintzea ezin daiteke egin, ezta behar ere, hizkuntzen arteko borroka eta gatazkaren bidez; aitzitik eta Konstituzioaren 3.3 artikulua ezartzen duenari jarraiki, errespetu eta babes berezia behar duten ondareak direla aitortuz.



EUSKARAREN LEGEA

Printzipio hauetan ezartzen da Foru Lege hau, zeinek aipatutako konstituzio agindua bete eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. artikuluan aurrikusitakoa garatzen bait du.

ATARIKO TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. 1. Foru Lege honen xedea euskararen erabilpen normal eta ofiziala arautzea da, gizarte elkarbizitzaren alorrean nahiz irakaskuntzañ.

2. Hauexek dira Lege honen ezinbesteko helburuak:

a) Hiritarrek euskara ezagutu eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko tresnak zehaztea.

b) Euskararen berreskurapen eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz.

c) Euskararen erabilpen eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatzeta eta begirune erizpideei jarraiki, guzti hau Nafarroako errealitate soziolinguistikoa- ren arabera.

3. Nafarroako euskalkiek errespetu eta babes berezia izanen dute.

2. artikulua. 1. Gaztelera eta euskara Nafarroako hizkuntza berekiak dira eta, ho- rren ondorioz, hiritar guziek dute ezagutu eta erabiltzeko eskubidea.

2. Gaztelera da Nafarroako hizkuntza ofiziala. Baita euskara ere Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. artikuluan eta Foru Lege honetakoetan aurrikusitako eran.

3. artikulua. 1. Botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte hizkuntzagatik hiritarrak gutxietsiak izan ez daitezzen.

2. Botere publikoek hizkuntz araua errespetatuko dute, Foru Lege honetan xeda- tutakoa eta hura garatzen duten xedapenen ondorio diren iharduketetan.

3. Hizkuntz arauen ezartze ondorioetarako, Euskaltzaindia izanen da erakunde aholkuemaile ofiziala, eta berari eskatuko dizkiote botere publikoek aurreko atalean ezarritakoa betetzeko beharrezko zaizkien txosten eta diktamenak.

4. artikulua. Indarrean dagoen legeriaren arabera, eta Foru Lege honetan ezartzen diren hizkuntz eskubideetan babestuak izateko, hiritarrak Epaille eta Auzitegietara zu- zen daitezke.

5. artikulua. 1. Foru lege honen ondorioetarako, Nafarroak honako eremu hauek ditu:

a) Eremu euskalduna, ondoko udalerriek osatua:

Abaurregaina, Abaurrepea, Altsasu, Anue, Araitz, Arantza, Arano, Arakil, Arbi-



EUSKARAREN LEGEA

zu, Areso, Aria, Aribe, Arruazu, Bakaiku, Basaburua, Baztan, Bertizarana, Betelu, Auritz, Ziordia, Donamaria, Etxalar, Etxarri-Aranatz, Elgorriaga, Eratsun, Ergoien, Erroibar, Esteribar, Ezkurra, Garaioa, Garralda, Goizueta, Uharte-Arakil, Imotz, Irañeta, Ituren, Iturmendi, Labaien, Lakuntza, Lantz, Larraun, Leitza, Lesaka, Oitz, Olazti, Orbaitzeta, Orbara, Orreaga, Saldias, Doneztebe, Sunbilla, Ultzama, Urdazubi, Urdiain, Urrotz (Malerreka), Luzaide, Bera, Hiriberri, Igantzi, Zugarramurdi.

b) Eremu mistoa, ondoko udalerriek osatua:

Abartzuza, Antsoain, Agoitz, Artzibar, Atez, Barañain, Burgi, Burlata, Ziriza, Zizur, Etxarri, Etxauri, Eguesibar, Ezkaroze, Espartza, Lizarra, Ezkabarte, Garde, Goñerri, Gorza, Gesalatz, Uharte, Izaba, Itza, Itzaltzu, Eaurta, Xulapain, Lezaun, Lizoain, Otsagi, Odieta, Olaibar, Oltza, Ollaran, Orontze, Orotz-Betelu, Iruña, Gares, Erronkari, Jaitz, Sarze, Urzainki, Uztarroze, Bidankoze, Bidaurreta, Atarrabia, Deierri eta Zabaltza.

c) Eremu ez-euskalduna, gainerako udalerriek osatua.

2. Aurreko atalean zehaztutakoa berrikus daiteke, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. eta 20.2 artikuluetan ezarritako prozedurari jarraiki.

3. Nafarroako Gobernuak aldizka euskararen errealitate soziolinguistikoari buruzko ikasketak egitea aginduko du, eta horien berri emanen dio Parlamentuari.

I. TITULUA

Erabilpen normal eta ofiziala

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

6. artikulua. Aitortu egiten da hiritar guztiek Administrazio Publikoekiko harremanetan gaztelera nahiz euskara erabiltzeko eskubidea dutela, ondorengo kapituluetan ezarritako eran.

7. artikulua. Nafarroako Aldizkari Ofiziala eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala gaztelerez eta euskaraz emanen dira argitara, aldibereko edizio banan-banan.

8. artikulua. 1. Foru Komunitatearen toponimoek gaztelerez eta euskaraz izanen dute izendapen ofiziala, honako arau hauen arabera:

a) Eremu euskaldunean, izendapen ofiziala euskalduna izanen da, gaztelerezko beste izen bat izan ezik, kasu honetan biak erabiliko bait dira.

b) Eremu misto eta ez-euskaldunean, izendapen ofiziala gaur egungoa izanen da. Hala ere, gaztelerez adierazitakoek euskaraz jatorrizko eta ohizko izen bat baldin badute, biak erabiliko dira.



EUSKARAREN LEGEA

2. Nafarroako Gobernuak, Euskaltzaindiaren aldez aurreko txostenari jarraiki eta artikulua honen lehendabiziko atalean aurrikusitakoaren arabera, Foru Komunitatearen toponimoak erabakiko ditu, baita lurralde, herri eta hiriarteko bideen izen ofizialak ere, eta horren berri eman beharko dio Parlamentuari. Hiriko kaleen izenak jartzea Udal bakoitzari dagokio.

3. Gobernuak erabakitako izenak, aurreko ataletan xedatutakoaren arabera, Nafarroako lurraldearen barruan eta ondorio guztietarako, legezkoak izanen dira eta errotuluak haiekin bat etorriko dira. Nafarroako Gobernuak errotulazioaren normalizazioa arautuko du, Estatuak onetsi dituen nazioarteko arauak beti errespetatuz.

9. artikulua. Nafarroako Gobernuak Iruñean euskara-gaztelera itzulpen ofizialeko unitate administratiboa sortuko du.

II. KAPITULUA

Erabilpen ofiziala eremu euskaldunean

10. artikulua. 1. Hiritar guztiek, Administrazio Publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelera erabiltzeko eta hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute.

Horretarako eta eskubide honen mailaz mailako erabilpena bermatzeko, neurri egokiak hartuko ditu eta beharrezko gerta daitezkeen bitartekoak erabakiko.

2. Pertsona batek baino gehiagok parte hartzen duen espediente edo prozeduretan, botere publikoek erabiliko dute biltzen diren parteek elkarrekiko akordioaz ezarritako hizkuntza.

11. artikulua. Erabilitako hizkuntza edozein izanik, administrazio iharduera guztiak baliozkoak izanen dira eta legezko eraginkortasun osoa izanen dute. Horren ondorioz, Administrazio Publikoen organoek parte hartzen duten ekintza guztiak, baita administrazio jakinerazpen eta adierazpenak ere, bi hizkuntzetan idatzi beharko dira, interesatu guztiek espreski bakar bat erabiltzea aukeratzen badute izan ezik.

12. artikulua. Agiri publikoak, emaileak aukeratutako hizkuntza ofizialean idatzi beharko dira, edo emaile bat baino gehiago balitz, hauek aukeratutakoan.

Fede-emaile publikoek, interesatuak eskatutakoaren arabera, euskaraz edo gazteleraz luzatu beharko dituzte kopiak eta testigantzak, eta behar denean, matrize eta agiriak bere erantzukizunpean itzuliko.

Nolanahi ere, gazteleraz luzatu beharko dituzte eremu euskaldunetik at indarra izan behar duten kopiak.

13. artikulua. 1. Erregistro Publikoetan, idazpenak dokumentua dagoen hizkuntza ofizialean luzatuko dira, eta beti ere, gazteleraz.

2. Kopia eta ziurtagirien igorketa hizkuntza ofizialetarik edozeinetan egingen da.

14. artikulua. Justizia Administrazioarekiko harremanetan, hiritar guztiek beraiek



EUSKARAREN LEGEA

hautatutako hizkuntza ofiziala erabili ahalko dute, indarrean dagoen legerian xedatutakoaren arabera.

15. artikulua. 1. Administrazio Publikoek eta izaera publikoko enpresek, eremu euskaldunean lan egiten duen langilegoaren euskara erabiltzeko gaikuntza progresiboa sustatuko dute.

2. Administrazio bakoitzak, beraiei dagozkien eskumenen esparruan, zehaztuko du zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskaraz jakitea, eta gainerakoentzat, kontutan hartzeko merezimendutzat hartuko da besteren artean.

16. artikulua. Eskualde euskalduneko Entitate Lokalek euskara erabiliko dute beren xedapen, argitalpen, hiriko kaleen errotulu eta tokien berezko izenetan, beti ere, ohizkoak errespetatuz.

III. KAPITULUA

Erabilpena eremu mistoan

17. artikulua. Hiritar guziek euskara nahiz gaztelera erabiltzeko eskubidea dute Administrazio Publikoetara zuzentzeko.

Eskubide honen erabilera bermatzeko, aipatu Administrazioek honako hau egin dezakete:

a) Urteroko lanpostuen eskeintza publikoan zein lanpostutarako izanen den nahitaezko euskaraz jakitea zehaztu.

b) Gainerako lanpostuetara iristeko deialdietan euskararen ezagupena merezimendutzat baloratu.

IV. KAPITULUA

Erabilpena eremu ez-euskaldunean

18. artikulua. Aitortu egiten da hiritarrek Nafarroako Administrazio Publikoetara euskaraz zuzentzeko eskubidea dutela. Azken hauek interesatuei gaztelararako itzulpena eska diezaizkete, edo 9. artikuluan aurrikusitako itzulpen zerbitzuak erabili.

II. TITULUA

Irakaskuntza

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

19. artikulua. Hiritar guztiek dute hezkuntz mailetan irakaskuntza euskaraz eta erdaraz izateko eskubidea, ondoko kapituluetan ezarritako eran.

20. artikulua. Nafarroako Gobernuak arautuko du euskararen sartzea ikasketan plangintzetan eta ikastetxe bakoitzean nola aplikatu zehaztuko, lege honek eskualde desberdinetarako xedatutakoaren xedearen barruan.

EUSKARAREN LEGEA

21. artikulua. Nafarroako Gobernuak, bere eskumenen esparruan, behar diren ekintzak aurrera eramanez ditu, irakaslearen prestakuntzarako goi-mailako zentruen ikasketa-planek euskarazko irakaskuntzarako beharrezko den irakaslearen gaikuntza egokia bermatu dezaten.

22. artikulua. Administrazio Publikoek, aurreko artikuluetan xedatutakoa eginkor bihurtzeko, beharrezko diren giza eta teknika bitartekoak eta materialeak paratuko dituzte.

23. artikulua. Ikasketa plangintza ofizialek euskara Nafarroako kultur ondareztat hartuko dute, baita Foru Lege honen xedeei egokituko ere.

II. KAPITULUA

Irakaskuntza eremu euskaldunean

24. artikulua. 1. Ikasle guztiek irakaskuntza hartuko dute, guraso-boterea edo tutoretza daukan pertsonak, edo hala badagokio, ikasleak berak aukeratutako hizkuntza ofizialean.

2. Hezkuntza maila ez-unibertsitarioetan derrigorrezkoa izanen da euskara eta erdararen irakaskuntza, ikasle guztiek oinarrizko eskolatzearen bukaeran bi hizkuntzetan gaitasun maila nahikoa frogatu ahal izan dezaten.

3. Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko ikasketak eskualde euskaldunetik at hasi dituzten ikasleak edota eskualde honetan ohizko ez den bizilekua dutela justifikatzen dutenak, euskararen irakaskuntzatik salbuetsiak izan daitezke.

III. KAPITULUA

Irakaskuntza eremu mistoan

25. artikulua. 1. Euskara irakaskuntzan sartzea mailaz maila, gero eta gehiago, eta nahikotasunaz egingen da, ikastetxeetan eskatzen dutenendako euskarazko irakaskuntza duten ereduak sortuz.

2. Hezkuntza maila ez-unibertsitarietan euskara irakatsiko zaie nahi duten ikasleei, oinarrizko eskolatzearen bukaeran euskararen ezagupen nahikoa izan dezaten.

IV. KAPITULUA

Irakaskuntza eremu ez-euskaldunean

26. artikulua. Euskararen irakaskuntza bultzatua izanen da, eta hala behar izanez gero, botere publikoek osoki edo partzialki finantziatua, sustapen eta promozio erizpidei jarraiki eta eskarien arabera.



III. TITULUA

Komunikabide sozialak

27. artikulua. 1. Administrazio Publikoek bultzatuko dute euskararen mailaz mailako presentzia komunikabide sozial publiko eta pribatuetan.

Horretarako, eta komunikabideek euskara gero eta gehiago eta ohizko moduan erabil dezaten, Nafarroako Gobernuak ekonomi eta materiale laguntza-planak gauzatu tuko ditu.

2. Foru Komunitateak gestionatzen dituen telebista eta irrati emisora eta gainerako komunikabideetan, Nafarroako Gobernuak euskararen presentzia egokia begiratu ko du.

28. artikulua. Administrazio Publikoek babestuko dituzte euskaraz egiten diren azalpen kultural eta artistikoak, liburu argitalpenak, ikusentzunezko ekoizpena eta bestelako ekintzak.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Nafarroako Gobernuak, "Bianako Printzea Erakundea" Kultur Zerbitzuaren bidez, Foru Lege honen 1.3 artikuluan ezarritakoa bete erazteko behar diren iharduerak aurrera eramanez ditu.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak, 9. artikuluan aipatzen den euskara-gaztelera itzulpen ofizialeko unitate administratiboa sortuko du.

AZKEN XEDAPENAK

1. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau garatu eta aplikatzeko beharrezko diren xedapenak emateko.

2. Foru Lege hau indarrean jarriko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Nik, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 22. artikuluan xedatutakoa betez, Foru Lege hau B.M. Erregeren izenean aldarrikatzen dut, Nafarroako Aldizkari Ofizialean berehala argitara eta Estatuko Aldizkari Ofizialera igor dadin agintzen dut, eta hiritar eta agintariei bete eta bete eraz dezaten manatzen diet.

Iruñean, mila bederatzehun eta larogeitaseigarreneko abenduaren hamabostean.—
Nafarroako Gobernuaren Lehendakaria, Gabriel Urralburu Tainta.

29/2003 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena

29/2003 FORU DEKRETUA, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 2.1 eta 6. artikuluek ezartzen dute herritar guztiek dutela gaztelania eta euskara jakin eta erabiltzeko eskubidea, hartan zehatz adierazten den eran. 2.2 artikuluek ezartzen du gaztelania dela Nafarroa osoko hizkuntza ofiziala, eta euskara hizkuntza koofiziala dela gaztelaniarekin batera Nafarroako eremu euskaldunean, Nafarroako Foru Eraentza Birezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. artikuluan eta Euskarari buruzko Foru Lege horretakoetan ageri den eran.

Euskarari buruzko Foru Lege horrek, 5. artikuluan eta harekin bat datozenetan, hiru hizkuntza eremu ezarri ditu Nafarroan, eta Foru Dekretu honek esparru horiek hartzen ditu bere baitan. Eremu euskaldun bat dago, eta hartan euskara koofiziala da gaztelaniarekin batean, horrez gain eremu mistoa eta, hirugarrenik, eremu ez-euskalduna; azken bietan euskara ez da hizkuntza ofiziala. Hiruetan aitortzen zaie herritarrei administrazio publikoekiko harremanetan euskara erabiltzeko eskubidea, Foru Legean berean ezarritako eran, eta eskatzen zaie administrazio horiei eremu bakoitzean hainbat neurri har dezatela eskubide hori gauzatzeko, modu eta maila ezberdinetan.

Guztiendako Administrazio Prozeduraren arloan indarra duen araudiak aitortzen du herritarrek, administrazio publikoekiko harremanetan, eskubidea dutela beren autonomia erkidegoetako lurraldean hizkuntza ofizialak erabiltzeko, lurralde bakoitzean ofizialak diren hizkuntzak hain zuzen. Orobat ezartzen du, Estatuko Administrazio Orokorreko organoek -egoitza autonomia erkidego batean dutenek-prozeduretan parte

hartzen dutenean, prozedurak interesatuak hautatzen duen hizkuntza ofizialean tramitatuko direla, interesatuaren beraren hizkuntza eskubideen arabera. Era berean, Botere Judizialari buruzko Lege Organikoak gai hori arautzen du aplikatzen den esparruan.

Bidezko izanik, beraz, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzea, martxoaren 21eko 70/1994 Foru Dekretua eman zen lehenbizi, eta, ondoren, uztailaren 4ko 135/1994 Foru Dekretua. Ikusi da azken horretan ageri diren agindu batzuk berrikustea komeni dela, horrela segurtasun juridikoaren printzipioa sendotzeko, erabilera gauzatzeko behar diren bitartekoekin euskara ponderatzeko eta Nafarroako errealitate soziolinguistikoa erantzuteko, orain arteko esperientziari jarraikiz.

Horri loturik, Administrazio prozedura erregulatzen duten araei jarraikiz interesatuak diren herritarrek prozeduretan dagozkien jarduerak administrazio publikoak hizkuntza ofizialeko edozeinetan -edo bietan batera- egiteko duten eskubidea eta ahalmena (Euskarari buruzko Foru Legearen 10, 11 eta 12. artikuluetan ezarritakoaren arabera) egiazkoa eta eraginkorra egiteko betebeharra bateragarria izan dadin eremu euskalduneko administrazio publikoek beren egintza, komunikazio eta jakinarazpenak ele bitan egiteko duten lege-aginduekin, Foru Dekretu honek, Legearen ezinbesteko osagarri gisa, ezarri du eremu euskalduneko administrazio publikoetako organo eskudunek, beren autonomia eta antolaketarako ahalmenak errespetatuz, eskubide hori bermatzeko behar diren elementu materialez hornitzeko aukera izanzen dutela.



Administrazio publiko horiek eta beren menpeko erakundeek beste administrazio batzuekin izaten dituzten harremanei dagokienez, alde batetik bereizten dira Estatuko Administrazioarekin eta Justizia Administrazioarekin izaten direnak, halakoetan Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko legeriari eta Botere Judizialari buruzko Lege Organikoan xedaturikoari jarraituko baitzaio.

Nafarroako gainerako administrazio publikoekin izaten diren harremanetan, berriz, aldean borondate eta autonomiaren printzipioari jarraituko zaio, non eta administrazio horiek prozeduran interesatuak direla ageri ez den, administrazio prozedura erregulatzen duten arauen arabera. Halakoetan, Euskarari buruzko Foru Legearen 10, 11 eta 12. artikuluek interesatuak diren gainerako herritarrentzat ezarritakoa beteko da.

Bestalde, doktrina konstituzionalaren arabera, "berariazko betebeharrak" kalifikazioaren ordean (aurreko araudiak euskaraz jakiteari ematen ziona zenbait lanpostu betetzeko nahitaezkoa denean), "nahitaez jakitea" kalifikazioa jarri da, Euskarari buruzko Foru Legearen 15.2 artikuluan azaltzen denari hobeiki lotzen baitzaio, eta, horrela, Konstituzioaren 103. artikuluan ageri diren merezimendu eta gaitasun printzipioen arabera neurtu behar diren jakiteen esparruan sar baitaiteke.

Azkenik, araudi teknika dela medio, aurreko testua ordezkatzeko duen beste bat erabili da berrikuspen hau egiteko.

Nafarroako Kontseiluak 2003ko urtarrilaren 14ko bilkuran hartutako erizpenarekin bat etorriz.

Horiek horrela, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hiruko otsailaren hamarreko bilkuran hartutako erabakiari jarraituz,

DEKRETATU DUT:

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. 1. Foru Dekretu honek garatzen du Nafarroako administrazio publikoetan izaten den euskararen erabilera normal eta ofizialaren erregulazioa.

Aplikazio eremua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, toki administrazioek eta haiei lotutako zuzenbide publikoko entitateek osatzen dute.

2. Funtsezko helburu hauek ditu:

a. Eremu euskaldunean, berdin erabili ahal izatea hizkuntza ofiziala bata nahiz bestea, laneko nahiz herritarri zerbizua emateko hizkuntza gisa.

b. Eremu mistoan, eremu horretan herritarrek beren hizkuntza eskubideak erabiltzea ahalbidetzeko beharrezkoak diren langileak antolatu eta gaitzea.

c. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzu nagusietan, erabiltzaileari, eskatzen duenean, zerbitzua euskaraz eman ahal izateko behar diren langileak antolatu eta gaitzea.

Nafarroako Foru Komunitateko zerbitzu nagusiak Nafarroako biztanle guztiei zerbitzua ematen dietenak dira, zehazki zein lurraldetan kokaturik dauden kontuan hartu gabe.

3. Foru Dekretu honen aplikazioa pixkana-pixkana eginen da, Administrazio bakoitzak unean-unean dituen ahalbideen arabera, betiere.

2. artikulua. Foru Dekretu honek aipatzen dituen eremuak, mugaz eta izenez, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5. artikuluan ezarritakoak dira.

3. artikulua. Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzerakoan, Euskarari buruzko Foru Legean, Foru Dekretu honetan eta osagarri dituen xedapenetan ezartzen den eran eta haien ondoriozko baldintzetan aplikatuko da nahitaezotasunaren printzipioa, eta halaberrean baloratuko da euskaraz jakitea merezimendu gisa.

4. artikulua. Nafarroako Gobernuak zehaztuko du zein izanen den, Foru Dekretu honetan ageri diren jarduera guztietan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen artean arituko den organo laguntzailea eta, hala behar denean, organo koordinatzailea, bereziki Nafarroako Gobernuak euskararen erabilerarako onesten dituen jarduera planak, hala denean, gauzatzeari dagokienez.

Halaber, zehaztuko du, toki entitateetan eta beste administrazio publiko batzuetan euskararen erabilerarako jarduera planak egiteko organo laguntzailea zein izanen den, Foru Dekretu honetan azaltzen denari jarraituz, betiere entitate eta administrazio horiek eskaera egiten badute.

5. artikulua. Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari lotutako zuzenbide publikoko entitateek, Foru Dekretu honetako 1.2 artikuluan aipatu helburuak pixkana-pixkana erdiestera joko duten planak egin eta onetsiko dituzte.

Halaber, toki administrazioek beren planak egin ahaliko dituzte, dagokien jarduera eremuaren barnean.

6. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, toki administrazioek eta haiei lotutako zuzenbide publikoko entitateek, euskaraz jakin eta euskaraz erabiltzeko behar diren langileak pixkana-pixkana gaitzera joko duten neurriak hartuko dituzte, horrela Euskarari buruzko Foru Legean, Foru Dekretu honetan eta garatuko duen araudian, hala denean, ezarritakoa pixkanaka bete dadin.

II. TITULUA

Euskara Administrazioan

I. KAPITULUA

Eremu euskalduna

1. ATALA

Xedapen orokorra

7. artikulua. Eremu euskalduneko Nafarroako administrazio publikoetan eta haiei lotutako zuzenbide publikoko entitateetan euskara eta gaztelania erabiliko dira Euskarari buruzko Foru Legean eta Foru Dekretu honetan ezartzen diren irizpideen arabera. Errespetatuko da, betiere, herritarrek zerbizuetara jotzean bi hizkuntza ofizialetako edozein askatasunez hautatzeko duten eskubidea, bai eta hizkuntzagatik baztertuak ez izateko eskubidea ere.

2. ATALA

Kanpo eta barne erabilera

8. artikulua. 1. Serán válidas y tendrán plena eficacia jurídica todas las actuaciones administrativas cualquiera que sea la lengua oficial empleada.

2. Berez egintza administratiboak diren administrazio jarduerak, antolamendu juridikoak ezartzen duenari jarraituz, eremu bereko beste pertsona fisiko edo juridiko batzuei jakinarazi behar bazaizkie, gaztelaniaz eta euskaraz idatzi beharko dira, ez badute behintzat interesatuak diren guztiek (administrazio prozedurari buruzko arauen arabera) hizkuntza bat bakar erabiltzea espresuki eskatzen, Euskarari buruzko Foru Legearen 10.1, 11 eta 12. artikuluen arabera.

3. Administrazio publikoetako eta beren menpeko erakundeetako organo eskudunek gaztelaniaz, euskaraz edo ele bitan idatzitako inprimaki, eredu edo formularioak eduki ahaliko dituzte interesatuek egin beharreko jardueretarako, aurreko puntuan ezarritakoaren arabera.

3. ATALA

Administrazio publikoen arteko harremanak

9. artikulua. 1. Eremu euskalduneko administrazio publikoek eta haiei lotutako zuzenbide publikoko entitateek elkarri igortzen dizkioten agiri, jakinarazpen eta komunikazio administratiboak bi hizkuntza ofizialetan idatzi beharko dira, euskarri bakarrean edo bitan, alde ukituek hizkuntza bakarrean egitea espresuki hitzartzen dutenean izan ezik, Administrazioaren edo dagokion entitatearen organo eskudunak ezartzen duena kontuan harturik.

2. Euskarari buruzko Foru Legearen 12 eta 13. artikuluetan ezarritakoaren arabera eta haietan azaltzen den eran, fede publiko administratiboa eta ziurtatze administratiboaren eginkizuna esleitu duten funtzionario publikoek gaztelaniaz egin beharko dituzte, beti, beren administrazioen aurrean eman eta ondorioak eremu euskaldunetik kanpo izan behar dituzten agiri publikoen kopiak. Horretaz gain, administrazio publikoen menpeko erregistroetan dauden idazpenen kopiak eta ziurtariak hizkuntza ofizialetako edozeinetan egiten dituzte.

3. Eremu euskalduneko administrazio publikoek eta beren menpeko erakundeek Estatuko Administrazioarekin eta menpeko dituen erakundeekin gaztelaniaz izanen dituzte harremanak; Nafarroan egoitza duten organoetara zuzentzen direnean, aldiz, euskaraz ere erabili ahaliko dute, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen 36. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

4. Justizia Administrazioarekin izaten diren harremanei dagokienez, aipatu administrazio publikoek Botere Judizialari buruzko Lege Organikoan ezarritakoari jarraituko diote.



5. Eremu euskalduneko administrazio publikoek, beren arteko harremanetan, eremu horretako beste administrazioekin askatasunez hitzartzen duten hizkuntza erabili ahalko dute; salbuespena izan da administrazio prozedura arautzen duen legeriaren arabera beste administrazioak interesatuak izatea administrazio prozedura batean eta harremana prozedura horren ondoriozkoa izatea. Halakoetan, Euskarari buruzko Foru Legearen 11. artikuluan eta Foru Dekretu honen 8.2 artikuluan xedaturikoa bete beharko da.

4. ATALA

Administratuekiko harremanak

10. artikulua. 1. Eremu euskalduneko bereko pertsona fisiko nahiz juridikoei igortzen zaizkien komunikazio eta jakinarazpenak ele bitan eginen dira, ez badute behintzat interesatuak bi hizkuntza ofizialtarik bat bakarera erabiltzea espresuki eskatzen, Euskarari buruzko Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Harremana herritarrek edo beste administrazio publikoak interesatuak diren prozeduren ondoriozkoa denean, Foru Dekretu honen 8.2 eta 9.5 artikuluetan azaltzen denari jarraikiz, gaztelaniaz, euskaraz edo ele bitan idatzitako inprimaki, eredu eta formularioak erabili ahalko dituzte.

2. Ahozko komunikazioetan, funtzionarioek zerbitzua eman ahalko diete administrazioari azken hauek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean.

5. ATALA

Irudia, oharrak eta argitalpenak

11. artikulua. 1. Bulego, langela eta egoitzetako errotoak, paperen idazpuruak edo menbreteak, zigilu ofizialak eta gainerako identifikazio nahiz seinalizazio elementuak ele bitan idatziko dira.

2. Xedapenak eta eraginkortasuna izateko Aldizkari Ofizialean egiten diren horien argitalpenak, bai eta kaleen errotoak eta tokien izenak gaztelaniaz eta euskaraz izanen dira, Euskarari buruzko Foru Legearen 16. artikuluari jarraikiz.

II. KAPITULUA

Eremu mistoa

1. ATALA

Aplikatzeko irizpide orokorrak

12. artikulua. 1. Eremu mistoko Nafarroako administrazio publikoetan euskara eta gaztelania erabiliko dira Foru Dekretu honek ezarritzen dituen irizpideen arabera.

2. Zerbitzua eremu mistoan ematen duten Nafarroako administrazio publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte, herritarrek Administrazioarekin euskaraz egiteko duten eskubidea ahalbidetzera jotzeko, Foru Dekretu honetan ageri den moduan.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzu nagusietan, egoitza Iruñean badute eta beren jarduera biztanle guztientzat baldin bada, euskara-gaztelania itzulpen ofizialeko unitate administrazioa ezarriko da, eta, erabiltzaileak eskatzen duenean, oinarriko administrazio zerbitzuak euskaraz eman ahal izatera joko duten neurri osagarriak hartuko dira. Eremu mistoko Nafarroako beste administrazio publiko batzuek hautazkoa izanen dute beren zerbitzu nagusietan itzulpeneko unitate administrazioa sortzea. Aurreikuspen hori garatuko da Foru Dekretu honen 5. artikuluan aipatu planen barnean.

2. ATALA

Baliabide materialak

13. artikulua. Egoitza eremu mistoan duten Nafarroako administrazio publikoek eta haien lotutako zuzenbide publikoko entitateen zerbitzuak erabiltzen dituzten barne inprimakietan eta paperetan idazpuruak eta menbreteak gaztelaniaz idatziko dira. Inprimakiak kanpoko jendeak erabiltzeko badira, gaztelaniaz eta ele bitan idatzitako formulario bereziak izanen dira, interesatuak horietako bat hautatzeko.

3. ATALA

Erakundeen arteko harremanak

14. artikulua. 1. Eremu mistoko administrazio publikoek eta haien lotutako zuzenbide publikoko entitateek elkarri edo eremu euskalduneko koei igortzen dizkieten agiri, jakinarazpen edo komunikazio administrazioak ele bitan izan ahalko dira, euskarri bakarrean, baina gaztelaniaz izan beharko dute hizkuntza bakarra erabiliz gero.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta hari lotutako zuzenbide publikoko entitateek, hots, egoitza eremu mistoan dutenek, eremu euskalduneko eta mistoan dauden beste administrazioetara

igortzen dituzten agiri, jakinarazpen eta komunikazio administrazioak gaztelaniaz idatzi beharko dira, eremu euskalduneko eta euskaraz hasitako administrazio prozedurei dagozkienak izan ezik, horiei ele bitan eman ahalko baitzaie jarraipena.

3. Aurreko idatz-zatietan sartzen ez diren administrazio publikoek eta haien lotutako zuzenbide publikoko entitateei igortzen zaizkien agiri, jakinarazpen eta komunikazio administrazioak gaztelaniaz idatziko dira; ele bitakoek ere balioa izanen dute, eremu euskalduneko eta euskaraz hasitako administrazio prozedurak baldin badira.

4. ATALA

Administratuekiko harremanak

15. artikulua. 1. Egoitza eremu mistoan duten Nafarroako Foru Komunitateko Administraziooko zerbitzuetatik eremu euskalduneko pertsona fisiko nahiz juridikoei igortzen zaizkien komunikazio eta jakinarazpenak gaztelaniaz eginen dira, non eta interesatuak espresuki euskaraz erabiltzea hautatzen ez duten, orduan ele bitan egin ahalko baitira.

2. Eremu mistoko pertsona fisiko edo juridikoei erabiltzeko inprimaki eta formularioetan gaztelania hutsean edo ele bitan (gaztelania-euskara) idatzitako dokumentua erabili ahalko da, baina ale bereziak izanen dira, erabiltzaileak bat hauta dezan.

5. ATALA

Irudia, oharrak eta argitalpenak

16. artikulua. 1. Egoitza eremu mistoan duten Nafarroako administrazio publikoek eta haien lotutako zuzenbide publikoko entitateen bulego, langela eta egoitzetako errotoak, paperen idazpuru eta menbreteak, zigilu ofizialak eta gainerako identifikazio nahiz seinalizazio elementuak gaztelaniaz idatzi beharko dira.

2. Xedapenak, oharrak, argitalpenak, iragarkiak eta mota guztietako publizitatea gaztelaniaz izanen dira.

3. Aurreko idatz-zatian ezarritakoa galarazi gabe, Nafarroako Foru Komunitateko Administraziooko zerbitzu nagusiek biztanle guztientzat egiten dituzten informazio foiletoak, kanpainetako material grafikoa, argitalpenak edo antzeko idazkiak gaztelania hutsean, edo edizio bakar elebiduneko, edo gaztelania eta euskarazko edizio berezietan idatzita egon ahalko dira, kasuen arabera, argitalpenaren ardura duen Departamentuko kontseilari titularren erabakiarri jarraikiz.

III. KAPITULUA

Eremu ez-euskalduna

17. artikulua.

1. Eremu ez-euskalduneko administrazio publikoek interesatuak eskatuko diete euskaraz aurkezten dituzten agiriak gaztelaniazko itzulpena ere aurkez dezatela aldi berean, baina, ezinezkoa bada, itzulpen ofizialeko zerbitzuak erabili ahalko dituzte herritarrei zerbitzua emateko, horiek, beren eskubideak erabiliz, administrazioetara euskara hutsean zuzen daitezkeenean.

2. Eremu ez-euskalduneko administrazio publikoek eta haien lotutako zuzenbide publikoko entitateek egiten duten jarduera, inprimaki, zigilu, agiri, jakinarazpen, komunikazio, seinalizazio, errotoak, argitalpen eta publizitate oro gaztelaniaz izanen da.

III. TITULUA

Euskara nahitaez jakitea, eta euskara baloratzea lanpostuak bete behar direnean

I. KAPITULUA

Eremu euskalduna

18. artikulua. 1. Nafarroako administrazio publikoek, ebazpen arrazoituaren bidez, beren plantilla organikoetan adieraziko dute euskaraz jakitea zer lanpostu eskuratzeko izanen den nahitaezkoa, zereginen, Foru Dekretu honetako zehaztapenen eta eskariaren arabera; lanpostu horien zereginen dagokien jakite maila adierazi beharko da.

2. Gero, hizkuntza eskakizun hori kasuan kasuko lan eskaintza publikoetan eta lanpostuen deialdietan adieraziko da.

3. Lanpostu horiek eskuratzen dituztenek, aurrerantzean, euskaraz jakitea nahitaezkoa duten lanpostu hutsak betetzeko deialdietan soilik parte hartu ahalko dute.

4. Errespetatu eginen dira euskaraz jakitea etorkizunean nahitaezkoa izanen duten lanpostuak orain euskaraz jakin gabe betetzen dituzten pertsonak eskuratutako eskubideak. Betiere, euskara ikasteko prestakuntza ekintzarik antolatzen bada, nahi badute horietan parte hartzeko aukera eskainiko zaie.

19. artikulua. Gainerako lanpostuak bete behar direnean, merezimenduzko lehiaketa bidez egiten bada, euskaraz jakitea merezimendu kualifikatuztat hartuko da, beste batzuen artean.

20. artikulua. 1. Maila guztietako lanpostuetan, baldin eta euskaraz jakitea lanpostuan aritzeko nahitaezkoa edo merezimendu kualifikatua bada, Hizkuntza Eskola Ofizial batek emandako Gaitasun Agiriaren bidez edo ofizialki baliokidea den titulazio baten bidez egiaztatu ahal da jakitea, edo, bestela, izangaiak plantilla organikoan edo deialdian eskatutako hizkuntza maila baduen ala ez zehazteko proba gaindituz.

2. Foru Komunitateko Administrazio Publikoak, eskatzen zaionean eta dituen baliabideen arabera, hizkuntza maila zehazteko probak egiten ditu eta laguntza emanen du itzulpen ofizialeko lanetan, euskara berriazko jakite gisa baloratzeko lanpostuen azterketan, lanpostuak betetzeko baremoen kalkuluan eta langile publikoentzat programatzen diren euskara ikastaroetan.

21. artikulua. 1. Euskaraz jakitea, beste merezimendu batzuen artean, merezimendu kualifikatuztat hartu behar denean eremu eskaldunean, euskararen balorazio horrek izan dezakeen gehikuntza portzentajea ez da inoiz ere izanen frantsesa, ingelesa edo alemana jakiteagatik (Europako Batasunean erabilera ofiziala duten hizkuntzen artean) merezimendu gisa aplikatzen den puntuazioaren % 10 baino goragokoa; deialdi bakoitzean zenbaterako zehatza adieraziko da.

2. Merezimendu horiek Foru Dekretu honen 20. artikuluan ageri diren irizpideen arabera egiaztatuko dira.

II. KAPITULUA

Eremu mistoa

22. artikulua. 1. Egoitza eremu mistoan duten Nafarroako administrazio publikoak ez daude inolaz ere behartuta euskaraz jakitea nahitaezko kalifikatuztera beren plantilletako lanpostuak bete behar dituztenean, euskara-gaztelania itzulpen lanekoetan izan ezik.

Eremu mistoan lanpostu zehatz baterako euskaraz jakitea nahitaezko kalifikatzen denean, Foru Dekretu honen 18. artikuluko 1. idatz-tatitik 4.era bitartekoetan ageri diren xedapenak aplikatuko dira.

2. Egoitza eremu mistoan duten Nafarroako administrazio publikoak, nahi badute, zehaztu ahalgo dute euskaraz jakitea, beste merezimendu batzuen artean, zein lanpostu zehatz eskuratzeko izanen den merezimendu beren oinarriko administrazio zerbitzuetan. Hori arrazoi-turiko ebazpenaren bidez egin eta plantilla organikoan adierazi beharko dute.

3. Euskaraz jakitea Foru Dekretu honen 20. artikuluan ezarritakoari jarraikiz egiaztatuko da.

23. artikulua. 1. Eremu mistoan euskaraz jakitea merezimendu gisa baloratzen denean, halakotzat hartzen denean, balorazio hori ez da inoiz ere izanen frantsesa, ingelesa edo alemana jakiteagatik (Europako Batasunean erabilera ofiziala duten hizkuntzen artean) merezimendu gisa aplikatzen den puntuazioaren % 5 baino goragokoa; deialdi bakoitzean zenbaterako zehatza adieraziko da.

2. Merezimendu horiek Foru Dekretu honen 20. artikuluan ageri diren irizpideen arabera egiaztatuko dira.

III. KAPITULUA

Langileen hizkuntza gaitasuna

24. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoak euskaraz gaitzeko ikastaroak antolatuko ditu, eta, horien bidez, euskaraz gai diren langileen behar besteko kopurua izanen dela ziurtatzen joko da, horrela Euskarari buruzko Foru Legean, Foru Dekretu honetan eta bere aplikazioaren ondoriozko araudian eta planetan ageri diren helburuak bete ahal izateko.

Arauz finkatuko dira ikastaro motak, ikastaroetan hasi eta parte hartzeko baldintzak, eta beren borondatez parte hartzen dutenek zer

betebehar hartuko duten jendeari zerbitzua euskaraz emateko lanetan eta euskara-gaztelania itzulpenekoetan.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.–Nafarroako Gobernua lanikidetzan ariko da Estatuko Administrazioarekin, Nafarroan kokaturik dagoen Estatuko Administrazio langileak pixkana-pixkana euskaraz gaitzera joko duten neurriak har ditzaten organo eskudunek, betiere langile horiek hizkuntza hori erabili behar badute zerbitzu administratiboa ematen dutenean, Administrazio Publikoetarako Ministerioak 1990eko uztailaren 20an eman zuen Aginduaren, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Guztiendako

Administrazio Prozedurari buruzko Legearen eta Foru Dekretu honen arabera.

Bigarrena.–Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak proposaturik, Erabakia hartuko da, Foru Dekretu honekin bat, lanpostuak betetzeko edozein deialditako behin betiko baremoak egiteko arauak ezar daitezzen; frantsesa, ingelesa edo alemana (Europako Batasuneko hizkuntza ofizial gisa) jakiteagatik kontuan hartuko den berriazko merezimendua sartuko da, bai eta euskarari dagokiona ere.

Hirugarrena.–Hezkuntzako funtzio publikoan euskararen erabilerearen berriazkotetasuna eta balorazioa arautzeko, Erabakia hartuko da, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak proposaturik, eta lehengo araudia Foru Dekretu honi egokituko zaio.

Laugarrena.–Foru Dekretu honen arabera zilegi denean ele bitan egitea errotuluak, seinalizazioak, agiriak, inprimakiak, formularioak, zigiluak, jakinarazpenak, argitalpenak, publizitatea eta komunikazioak, euskarri fisiko bereizietan egin ahalgo da, hots, gaztelaniaz bata eta euskaraz bestea, edo biak batera, Administrazio edo dagokion entitateko organo eskudunak erabakitzen duenaren arabera, non eta Foru Dekretu honetan espresuki besterik agintzen ez den.

Bosgarrena.–Agiri ofizialen gaztelaniazko eta euskarazko bertsioak interpretatzen arazorik sortzen bada eta arazo hori ebatzi behar denean, Administrazio Publikoak eta haien lotutako entitateek gaztelaniaz idatzitako agiriaren bidez ebatziko dute, lehen instantzian eta behar diren ondorioak izan ditzan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrak gabe utzi dira Foru Dekretu honetan ezarritakoaren kontra-koak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak eta, berriaz, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen uztailaren 4ko 135/1994 Foru Dekretu osoa eta haren babesean garaturiko araudi guztia.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Nafarroako Administrazio Publikoak eta haien menpeko erakundeek pixkanaka eta etengabe egokituko dituzte irudi, jakinarazpen, ohar eta argitalpenen elementu guztiak, hari eta Foru Dekretu honen 16. eta 17. artikuluetan aurreikusitakoa erabat bete arte. Horretarako, aipatu elementuak mantentzeko, zaintzeko eta berritzeko erabili ohi diren aurrekontuetako diru kopuruak erabiliko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.–Ahalmena eman zaio Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari, Foru Dekretu hau betearazi eta garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Bigarrena.–Foru Dekretu honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN ar- gitaratzen den egunean hartuko du indarra.

Iruñean, bi mila eta hiruko otsailaren hamarrean.–Nafarroako Go- bernuko lehendakaria, *Miguel Sanz Sesma*.–Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria, *Rafael Gurrea Induráin*.

A0301389

